BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3698

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Oñatiko (Gipuzkoa) «Oñati Gestio Heziketa» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.

Oiñatiko Ibarra kaleko 2an kokatuta dauden instalazio berrietan, baimenduta dituen lanbide-heziketako prestakuntza-zikloak eman ahal izateko ikastetxeko instalazioak handitzeko eskatuz, Oiñatiko «Oñati Gestio Heziketa» ikastetxe pribatuaren erakunde titularrak hasarazitako espedientea aztertu da.

Espediente horri Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimena ikastetxe pribatuei emateari buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (9ko BOE), Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxieneko baldintzak ezartzen dituen otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua (martxoaren 12ko BOE), hezkuntza sistemako Lanbide Heziketaren ordenazio orokorra ezartzen duen abenduaren 15eko 1538/2006 Errege Dekretua (2007ko urtarrilaren 3ko BOE), hezkuntza-sistemaren barruan lanbide heziketaren antolaketako alderdi jakin batzuk garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretua (maiatzaren 8ko BOE), eta gai horretan erabilgarriak diren gainerako xedapenak ikusi ondoren, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Oiñatiko Ibarra kaleko 2an kokatuta dauden instalazio berrietan, baimenduta dituen lanbide-heziketako prestakuntza-zikloak eman ditzan, 2011-2012 ikasturteik aurrera ikastetxeko instalazioak handitzeko baimena ematen zaio ondoren zehazten den ikastetxe pribatuari:

Kode-zenbakia: 20002980.

Izen generikoa: Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoa: «Oñati Gestio Heziketa».

Titularra: MU Enpresagintza, S. Coop.

Helbidea: Larraña auzoa, 16 e Ibarra, 2.

Udalerria: Oñati.

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa.

Baimena: ikastetxeko instalazioak handitzekoa, Oiñatiko Ibarra kaleko 2an kokatuta dauden instalazio berrietan baimenduta dituen lanbide-heziketako prestakuntza-zikloak eman ahal izateko.

Ikastetxearen osaera:

– Batxilergoan: Modalitateak: «Zientziak eta Teknologia» eta «Humanitateak eta Gizarte-zientziak», 4 unitate eta 140 ikaspostutarako edukiera.

– Lanbide-Heziketa:

• Familia: Administrazioa:

* Administrazio eta finantzetako goi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: ziklo 1, 20 ikaspostu, goizeko txanda.

* Idazkaritzako goi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: ziklo 1, 20 ikaspostu, goizeko txanda.

• Familia: Merkataritza eta Marketina:

* Nazioarteko merkataritzako goi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: ziklo 1, 20 ikaspostu, goizeko txanda.

* Merkataritza-kudeaketako eta Marketineko goi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: ziklo 1, 20 ikaspostu, goizeko txanda.

* Garraioaren Kudeaketako goi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: ziklo 1, 20 ikaspostu, goizeko txanda.

• Familia: Informatika:

* «Plataforma anitzeko aplikazioen garapena» goi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: ziklo 1, 20 ikaspostu, goizeko txanda.

2. artikulua.– Ikastetxeak indarrean dauden legeak bete beharko ditu, ikaspostuen kopuruari, eskola-unitate bakoitzeko gehienezko irakasle/ikasle erlazioari eta agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza eskakizunari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak Eraikuntzako Oinarrizko Araua bete beharko du, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez dauka bere baitan, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartezko laguntzak lortzea.

Bigarrena.– Agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 30a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.